

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Aingeru Irigaray jauna buru, Lekuona, Mitxelena, Villasante, Lojendio ta Arrue jaun euskaltzaiñak. Aresti, Zugasti, Loidi, San Martin, Artola, Zabala ta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Irigaray jaunak bere berba oneik agirian agertu daitezcan gura leuke: "Zibero eskualdeko toki bat betetzeko Mirande Ion jauna aurkeztu zutela bost euskaltzaiñek joan deneko batzarre batean. Eta gero beste norbaiten izena onartu zen. Baiñan, alan ta ere, txoilik azaldu nai dituela Mirande jaunaren merezimendu aundiak olerkari eta euskalari gisa. Eta adierazi ere nai du euskalari baten ideia bereziak etzirela traba izan bear, eta Azkue zenaren denboran ere etzirela izan, euskaltzain bezala onartua izateko, delako euskalariak beste batzarkideen ideiak errespetatzen dituen ber".

Fanderiko pentsuak saltzen dituen soziedadeak Tolosa-n bertsolarien jai bat egin gura dau Zezeillaren 3-an. Joan dira baimena eskatzen Donostian dagoen Informaziño eta Turismo Ministeriora eta Euskaltzaindiaren baimena be bear dabela esan deusie. Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dau olango jaiak egin daitezcan. Emon bekie paper bat esanik atsegin aundiagaz artzen dogula daukien asmoa.

Egin da Donostia-ko Astoria Teatroan Euskalerriko bertsolarien azken txapelketa nagusia. Uztapide gelditu da txapeldun eta Basarri bigarren. "Centro de Atracción y Turismo"-k irabaziaren erdia emon deusku eta 22.829,57 pts. gelditu dira Euskaltzaindiarentzat.

"Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País"-ek goresmen biziak bialdu ditu Astoria Teatroan egin dan bertsolarien saioagaitik.

Bilbo-ko Arriaga Teatroan be egin da aurreko batzarrean egitea erabagi zana. Oso egoki urten eban guztiak. Umeen sariak orniduteko Aita Frantzisko Kortabitarte jesuiteak zortzi milla peseta ekarri ditu eta Bizkaiko Bankuan milla peseta geiago kobrau dira bein kartaz eskeiñi euskuen gisan. Eskerrak emon bekiez.

Bertso paper sariketearen erabagia datorren batzarrean artu bedi. Txirrita-n omenez jai bat Ernani-n egitea Martiaren 17 inguruan oso egokia litzake. Egun orretan partidu leitekez sariak.

G. Eppherre, L. Dassance eta P. Lafitte-k firmatu daben eskabide bat irakurri da. Pierre Larzabal jauna euskaltzain egitearen gogoia erakusten dabe.

F. Krutwig jaunaren karta bat irakurri da. Eusebio Erkiaga eta Jon Etxaide jaunak euskaltzain izendatutearen proposiziñoa egiten dau. Gaiñera diño euskaltzainburu eta sekretario karguak urte birik bein aldatu bear litzakezala. Bere ustez momentu onetan Antonio Arrue jauna buru izendatutea oso ondo legoke.

Mitxelena-k diño Jon Etxaide jaunak karta bat idatzi deusala bere izena dabil-
la entzun dauenean. Eleuke euskaltzain izan gura. Bera baiño leenago egokiagoa
badagoela diño. Irigaray jaunak berba egin begi beragaz ortaz.

Loidi jaunak karta bat irakurri dau Gorostiaga eta Altube jaunak berari egiña.
Gorostiaga-k diñotso Eusebio Erkiaga jauna euskaltzain eta Kastor Uriarte eta Anai
Balentin Berriotxo euskaltzain ordezko izentau bear litzakezala bere ustez. Altube
jaunak: Ambrosio Zaratain, Kastor Uriarte eta Joakin Zaitegi jaunak omenezko eus-
kaltzain "académicos de honor, bienhechores (ongille)".

Aita Villasante-k diño Alfonso Irigoyen jaunagaz Euskaltzaindiak zor aundia
daukala eta bertan dagoela izentetako persona egoki bat. Orduan Irigoyen jaunak
batzarretik urten egin dau. Erabagi batzuk artu dira eta geroago dei egin deusie.

Erabagi dana da, Pierre Larzabal, Jose Maria Satrustegi, Eusebio Erkiaga eta
Alfonso Irigoyen euskaltzain izentetea. Alfonso Irigoyen ordezkoa izango dan ala ez
urrengo batzarrean erabagiteko itxi da. Ago batez artu da erabagia.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.